

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko martxoaren 3ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– **Erabakiak:**

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 130/2020 Erabakia, martxoaren 3koa. Onespena ematea abenduaren 27ko 828/2019 Erabakiaren hutsen zuzenketari. Erabaki horren bidez, onspena ematen zaio Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren 2019rako laugarren enplegu publikoaren eskaintzari.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 131/2020 Erabakia, martxoaren 3koa. Onspena ematea aplikatzeari Lezako udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari loturiko hiri lurzoruaren mugaketaren aldaketa partziala azaroaren 12ko 708/2019 Erabakiaren bidez onestearen ondorioz gehitutako hiru lurzoruaren balorazio irizpideak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 132/2020 Erabakia, martxoaren 3koa. Onspena ematea aplikatzeari Samaniegoko udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari loturiko hiri lurzoruaren mugaketaren aldaketa partziala azaroaren 12ko 709/2019 Erabakiaren bidez onestearen ondorioz gehitutako hiru lurzoruaren balorazio irizpideak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 133/2020 Erabakia, martxoaren 3koa. Onspena ematea 2/2020 kreditu gaitzeko espedienteari, 43.707,06 euroko zenbatekoaz, Ingurumen eta Hirigintza Sailak hala eskatuta, "Araztegiak zaintzeko hitzarmena" partidarako, xedea baita Ribabellosako araztegiaren ustiaketa eta zainketa sartzeari aldundi honek hondakin uren beste bederatzi araztegiarekin daukan kontratuan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 134/2020 Erabakia, martxoaren 3koa. Onspena ematea 202/2019 kreditu transferentziaren espedienteari, 2.961.591,38 euroko zenbatekoaz, zeina baita 2018ko ekitaldiko aurrekontu 2019ra luzatutakoa itxi eta likidatzeko prozesuari buruzkoa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 135/2020 Erabakia, martxoaren 3koa. Onestea zuzenbide publikoko diru sarrerak betearazte aldi biltzeko kudeaketa lanetan laguntzeko zerbitzuaren kontratua mantentzeak sortutako gastua esleitzea, baldin eta diru sarrera horiek ez badakarte aginteaz baliatzea edo funts publikoak erabili edo zaintzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 136/2020 Erabakia, martxoaren 3koa. Esleitzea "Gestión Tributaria Territorial SAU"ri aldundiaren, bertako erakunde autonomoen eta Arabako Foru Aldundiarekin betearazte aldi biltzeko kudeaketarako hitzarmenak izenpetzen dituzten zuzenbide publikoko erakunde zuzenbide publikoen betearazte aldi biltzeko diru sarreraren biltzeko kudeaketarako jardueretan ematea laguntza eta informatika zerbitzuak, lankidetzak eta laguntza tekniko zerbitzuak, materialak eta informatika.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 137/2020 Erabakia, martxoaren 3koa. Onspena ematea lankidetzak hitzarmena sinatzeari Gasteizko Udalarekin eta "ARABAKO GORRAK" Arabako pertsona gorren elkartearekin, zeinu hizkuntzako interprete zerbitzua eskaintzeko.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 138/2020 Erabakia, martxoaren 3koa. Baiestea interesatuak abenduaren 10eko 789/2019 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa. Erabaki horren bidez, mahasti zaharrak mantendu eta kontserbatzeko laguntzen 2019rako deialdia ebatzi zen.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 139/2020 Erabakia, martxoaren 3koa. Onespena ematea energia jasangarritasunerako ekintzak bultzatzeko laguntza lerroaren 2020-2021erako deialdiari.